

Bizitza Jokoan II. txostena

Estraktibismoa vs Giza Eskubideak

TARAHUMARA MENDILERROA:
ESKUBIDEAK DEFENDATZEAK
BIZITZA ARRISKUAN JARTZEA
SUPOSATZEN DUENEAN



Tarahumara Mendilerroa: Eskubideak defendatzeak bizitza arriskuan jartzea suposatzen duenean

Lehenengo edizioa: 2025

© Mugarik Gabe

ARGAZKIAK: Alianza Sierra Madre A.C.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Binari Comunicación

MUGARIK GABE

(www.mugarikgabe.org)
Facebook: Mugarik Gabe
Twitter: @mugarikgabe
Youtube: Mugarik Gabe
Instagram: @mugarikgabeongd

BIZKAIA

Vicente Garamendi taldea 5, lokala
48006 Bilbo
944 154 307 (bilbao@mugarikgabe.org)

ARABA

«Itziar» elkarten etxea. Zalburu plaza z/g
01003 - Vitoria-Gasteiz
945 277 385 (araba@mugarikgabe.org)

GIPUZKOA

Katalina Erauso 46, behea, 3. atea
20009 Donostia
943 445 977 (gipuzkoa@mugarikgabe.org)

Creative Commons lizentziarekin argitaratutako lana. Erreprodukzio osoa edo partziala baimentzen da, honako baldintza hauek betez gero:

- Aitortu (Attribution): Materiala hirugarren pertsonen banatu, kopiatu eta erakutsi dezakete, kredituetan aipatzen bada.
- Ez Komertziala (Non comercial): Jatorrizko materiala eta lan eratorriak banatu, kopiatu eta erakutsi egin daitezke, erabilera komertziala ez duten bitartean.
- Lan Eratorririk Gabe (NoDerivativeWorks): Materiala banatu, kopiatu eta erakutsi daiteke, baina ezin da erabili jatorrizkotik eratorritako lan bat sortzeko.



Hemen aurkeztuko diren ikerketa eta txostena honako proiektu honen harira egin dira: «Bizitza Jokoan: Lurra, Bizitzak eta Eskubideak» (II. Fasea), 2023an, eta Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) eta Mugarik Gabek finantzatu dute. Argitalpen honen edukia egilearen eta Mugarik Gabe taldearen ardurua da, eta ez du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia engaiatzen, proiektuaren finantzatzaile izan den arren.



**TARAHUMARA MENDILERROA:
ESKUBIDEAK DEFENDATZEAK
BIZITZA ARRISKUAN JARTZEA
SUPOSATZEN DUENEAN**

Lurra, animaliak, basoak, kultura baliabidetzat hartzen dira, eta gure gorputzek eta ondorengoek sistema estraktibista-asimilazionsita hazteko, mantentzeko eta defendatzeko baino ez dute balio, hau da, kolonialismoa eta kapitalismoa mantentzeko. Leanne Betasamosake Simpson. Mississauga Nishnaabeg herriko idazlea, musikaria eta akademikoa.

Lurralde nazionalaren ideia ez zen gure lurraldeez arduratu eta handik haurrera «nazioaren jabetza» bihurtu ziren, haien urak, airea eta lurrazpiko mineralak barne. Yásnaya Aguilar, hizkuntzalaria, itzultzailea, ikertzailea eta ayuujk (mixe) aktibista.

Aurkibidea

SARRERA / 6

TARAHUMARA MENDILERROAREN EZAUGARRIAK / 8

BIPILTZEAREN ETA ERRESISTENTZIAREN HISTORIA / 10

NEOLIBERALISMOTIK PROGRESISMORA / 12

COLORADAS DE LA VIRGEN: LURRALDEAGATIK
BORROKA ETA ERRESISTENTZIA INDIGENA / 14

CHORÉACHI (PINO GORDO): BIPILTZEA ETA KOMUNITATEAREN BABESA / 19

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO TRESNAK / 23

BABESA BERMATZEKO ERRONKAK / 24

AMAITZEKO... / 32

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK / 33



Sarrera

Basoak zaintzen ditugu gure seme-alabek, bilobek eta biloben seme-alabek euriez eta erortzen den uraz gozatzeko zoriona izan dezaten, garai horretan uztak berdinak izan daitezten. Basoa arduragabe mozten uzten baldin badiegu, gure birbiloben garairako, ura jada ez da izango oraingoa modukoa. Rarámuri indigena.

Tarahumara Mendilerroan lurraldea eta ingurumena defendatzeak bizitza arriskuan jartzea suposatzen du. Isela González Díaz, Alianza Sierra Madre A.C. Elkarteko zuzendaria.

Aipu horiek Tarahumara Mendilerroko komunitate indigenen eta haien ingurunearen arteko lotura sakona islatzen dute, eta baita haien lurraldea defendatzen dutenek aurre egin beharreko arriskuak. Ahots horiek errealitate kritikoa barnatzen gaituzte: lurraldearen defentsak ez du ingurumena babestea soilik helburu, baizik eta baita etengabeko mehatxuen aurrean herri indigenen biziraupen kulturala bermatzea ere.

Tarahumara Mendilerroan, lurralde indigenen gaineko antzinako eskubideak historikoki erabilera eta ohitura-gatik aitortu dira. Hala ere, Mexikoko estatuak legez hori ez duenez formalizatu, herri indigenetako komunitatei «izatezko komunitate» izatea leporatu zaie, eta, horrenbestez, haien balibideak eta bizimodua mehatxatzen dituzten jardueren eta erazketa-proiektuen aurrean haien lurraldeak defendatzeko ahalmena mugatu dute.

Eskualde horretan meatzaritza eta basoak moztea bezalako jardueretarako baimenak eman dituzte, kaltetutako komunitateen aurretiko kontsulta aske eta informaturako eskubidea bermatu gabe. Utzikeria horrek funtsezko galdera bat egitera bultzatzen gaitu: non geratzen dira haien lurraldeetan eta bizimoduetan zuzeneko eragina duten erabakietan parte hartzeko komunitate indigenen eskubideak? Gainera, jarduera horiek ezartzen direnean, eragiten dituzten ingurumen-kalte larriak maiz ez dira kontuan hartzen ezta kalte-ordain egokiak eskaintzen (Red en Defensa del Territorio Indígena, 2016, 26-37 or.).

Dinamika horiek guztiek bipiltzearen, ustiapenaren eta sarraskiaren logika koloniak betikotzen dituzte, eta ez dituzte herri indigenak soilik zapaltzen, haien eskubideak defendatzen eta buru egiten dutenak ere jazartzen dituzte; hala, mehatxuei eta kriminalizazioari aurre egiten diete eta haien bizitza arriskuan jartzen dute.

Latinoamerika osoan, giza eskubideen, lurraldearen eta natura ondareen defentsak muturreko arriskuak dakartza. Global Witness-en (2023) arabera, 2022an gutxienez 177 defendatzaile planeta babesteagatik erail zituzten, eta, guztira, 1.910 erailketa egon dira 2012tik aurrera (9 or.). Iniciativa Mesoamericana de Defensoras-ek (IM-Defensoras) (2024), bere aldetik, 2012 eta 2022 urteen artean Mesoamerikan lurraren, lurraldearen eta natura ondareen norbanako eta erakunde defendatzaileen aurkako 4.504 eraso dokumentatu zituen, eskualdean denbora-tarte horretan dokumentatutako eraso guztien % 15,6 da hori (39 or.).

Mexiko erailketa gehien erre-
gistratzen dituen herrialdea da, hilero erailtzen dituzte defendatzaileak. 2021ean guztira 54 erail zituzten, 2020an, aldiz, 30. Eraildako pertsonen % 40 baino gehiago indigenak ziren. Lurraren eta ingurumenaren defendatzaileentzako tokirik arriskutsuenetarikoa bihurtu da Mexiko, guztira denbora-tarte horretan 154 erailketa jazo ziren. Erailketa gehienak (131) 2017 eta 2021 urteen bitartean gertatu ziren soilik (Global Witness, 2022, 11-12 or.).

Coloradas de la Virgen-eko eta Choréachi-ko rarámuri komunitateak, Guadalupe y Calvo distrituan kokatuta, Tarahumara Mendilerroan, bipiltzearen eta indarkeriaren aurkako erresistentziaren adibide adierazgarriak dira. Eskualdeko baliabide naturalak ustiatu nahi dituzten eragile pribatuen, politikoen eta talde kriminalen etengabeko presioari aurre egiten diote komunitate horiek. Kolektiboki lurraldea defendatzeari datzekizkion arriskuen adibide argia da haien borroka, eta haien lurrak babestu ez ezik, haien kultura eta nortasuna ere babesten dituzte.

Azken urteotan, talde kriminalen indarkeriaren eta jazarpenaren ondorioz, Tarahumara Mendilerroan barne-desplazatu, mehatxu eta erailketa gehiago egon dira defendatzaileen artean. Interes erazuleak, gobernuaren axolagabekeria eta indarkeria biltzen dituen testuinguruan, egoera horrek lurraren defendatzaileen muturreko zaugarritasuna agerian uzten du.

Alianza Sierra Madre A.C. (ASMAC) funtsezkoa izan da Coloradas de la Virgeneko eta Choréachiko komunitate indigenak laguntzeko. Erazuketa-enpresen interesen eta legez kontrako jardueren (hala nola legez kontra basoak moztea) aurrean lurraldea defendatzeko borrokan lagundu diete. Gaur egun, Isela Gonzálezek (zuzendaria) eta ASMACeko beste langile batzuek Mexikoko estatuak eskainitako babes-neurriak dituzte. Komunitateak berak lurraldea defendatzen duela azpimarratu du I. Gonzálezek;

hortaz, komunitate osoak jaso behar du babesa. «Komunitate bere osotasunean babestea oso garrantzitsua da, izan ere, lurraldearen defentsa kolektiboaren ahalegina da. Haien lurrak eta kultura babesteko, komunitate osoak jaso behar du babesa» (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Ikerketa honetan, Tarahumara Mendilerroaren kokapena eta geografia-ezaugarriak, eskualdeko prozesu historikoak eta oraingo gatazketan duten eragina deskribatu ditugu. Horrez gain, elementu garaikideak ere jorratu ditugu, hala nola Merkataritza Libreko Itunak, erazuketa-ekonomiak eta nar-kotrafikoaren aurkako «gudak» komunitate indigenen berdintasun ezak eta zaugarritasuna betikotu izana.

Mugarik Gaben Tarahumara Mendilerroa bezalako eskualdeetan lurraldearen, natura ondareen eta giza eskubideen defendatzaileen bizitzak jokoan daudela ikusarazi nahi dugu, izan ere, eraso fisikoei, kriminalizazioari, indarkeria digitalei eta mehatxuei aurre egin behar diete. Choréachiko eta Coloradas de la Virgeneko kasuek ere borroka kolektiboa dela gogorarazten digute, eta, komunitate eta norbanako defendatzaileen babesa bermatzeak eragile politikoen konpromiso irmoa behar duela, tokian tokiko zein nazioarteko mailan. Horregatik, Iniciativa Mesoamericana de Defensorasek (IM-Defensoras) eta giza eskubideen beste erakundeek egindako txostenetan jasotako eskaeren eta erronken berri ere ematen du txosten honek.

Non geratzen dira haien lurraldeetan eta bizimoduetan zuzeneko eragina duten erabakietan parte hartzeko komunitate indigenen eskubideak?




Tarahumara Mendilerroaren ezaugarriak

Lurraldea indigenentzat haien jatorrizko tokia da. Hango jende gehiena ez dago beste tokietan bizitzeko prest. Jendearentzat oso zaila da lur horiek uztea. José Trinidad Baldenegro, rarámuri indigena.

Tarahumara Mendilerroa Mendebaldeko Sierra Madreko azpieskualdea da. Lurralde horretan Choréachi eta Coloradas de la Virgen komunitateak daude, Guadalupe y Calvo udalerriaren baitan, Chihuahua estatuko 67 udalerrietako bat dena, Mexikon. Eskualdea herrialdeko ipar-mendebaldean dago, «urrezko triangelu» gisa ezagutzen denaren baitan. Zonalde horrek Sinaloa, Durango eta Chihuahua estatuak barne hartzen ditu eta legez kontrako drogak hazteagatik eta trafikatzegatik ezaguna da.

Tarahumara Mendilerroak 75.910 kilometro karratuko azalera du eta altitudea toki altuenetan itsasoaren mailaren gaineko (i.m.g.) 2.800 metrora eta toki baxuenetan i.m.g. 300 metrora heltzen da.

2020ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, Tarahumara Mendilerroan rarámuri hizkuntza hitz egiten duten 91.554 pertsona daude, 47.070 emakumezko eta 44.484 gizezko. Hala ere, datu horiek ez dute oraingo biztanleria zehaztasunez islatzen, 2008tik, eta 2017tik



modu nabari larriagoan, eskualdean jasaten duten indarkeriak eragindako bortxazko desplazamenduak direla eta.

*Informe sobre Desarrollo Humano de los Pueblos Indígenas en México*ren (2010) arabera, Tarahumara Mendilerroa gizarte atzerakuntza handiena duten eskualdeetako bat da. Hala, Coloradas de la Virgen eta Choréachi Mexikoko udalerrri txiroenen artean daude: biztanleriaren % 90,6k ez dauka osasun-zerbitzurik; % 78,9k ez dauka edateko uririk; % 96,6k ez dauka estolda-sarerik; % 91,6k ez dauka energia elektrikorik; etxebizitzaren % 80,5ek lurrezko zoruak dituzte; eta biztanleriaren % 50ek baino gehiagok ez daki irakurtzen ezta idazten (REDETI, 2016, 9 or.).

ASMACEk Choréachiko eta Guadalupe y Calvoko komunitateen osasun-egoeraren inguruko datuak bildu ditu. Horiei esker, badakigu 2013 eta 2020 urteen artean 10 ama hil zirela eta biztanleriaren % 80k desnutrizio larria edo ertaina pairatzen zuela, eta osasun-krisi larriaren isla da hori (REDETI, 2024, 6-7 or.).

Tarahumara Mendilerroa Ipar Amerikan bakarra den bioaniztasunagatik ezaguna da. Nazio Batuen Ingurumen Programaren (2010) arabera, eskualde horrek ura, oxige-

noa, biomasa eta bioaniztasuna sortzen ditu, eta bertoko biztanleentzat ez ezik, Sonora, Sinaloa eta Texaseko (Estadu Batuak) biztanleentzat ere onuragarri da.

Eskualdean 4,3 milioi hektareako baso-erreserba dago eta pinuak, arteak eta galeria espezieak gailentzen dira. Dena den, aberastasun natural hori meatzaritza, turismoa, baso-ustiapena eta legez kontra basoak moztea bezalako jarduerak mehatxatu dute. Azken bi jarduera horiek Tarahumara Mendilerroan eragin larria izan dute. J. J. Loeira González eta J. Hernández Olivassen arabera (2019):

Tarahumara eskualdea Mexikoko baso-azaleran kalte handiena duten guneetako bat da. Global Forest Watch monitorizazio ekimenaren arabera, 2001etik 2017ra bitartean, 19.100 hektarea galdu zituen. Guadalupe y Calvo zuhaitz gehien galdu dituzten udalerrietako bat da: 2001etik 2017ra, gutxienez 3.014 hektarea erregistratu zituzten (21 or.).

Mendilerroa Chihuahuan euri-bilketa gune nagusia da, baina

kutsadura-arazo larriak ditu ur-iturrietan, meatzaritza, turismoa eta basoa moztearen ondorioz. Horrek ez du soilik baliabide horren eskuragarritasunean eragiten, bioaniztasuna eta komunitateen biziraupena ere arriskuan jartzen ditu.

Tarahumara Mendilerroa Chihuahuako euri-bilketa gune nagusia da, baina kutsadura-arazo larriak ditu ur-iturrietan





Bipiltzearen eta erresistentziaren historia

Egungo Tarahumara Mendilerroko herri indigenen egoera kolonizazioak ezaugarrituko prozesu historikoa luzearen ondorio da, ondoren estatuko politikak eta gatazka sozioekonomikoez betikotu dituzte berdintasun ezak eta eskubideen urraketak. Arazoa ulertzeko, eskualdeko historia, eta lurraldearen eta natura ondareen gaineko eskubideen aitortpen gabezia historia horrek izan duen eragina aztertzea ezinbestekoa da.

Mexikoko iparraldeko eta Estatu Batuetako hego-mendebaldeko klima idorrek herri indigenen bizimoduetan eragina izan zuen. Bizitza nomadak edo erdi nomadak darabiltzaten eta haien lurralde zabalen baitan edo Mendilerro osoan zehar etengabe mugitzen ziren. *Plan de Justicia de la Sierra Tarahumararen* (2023, 15 or.) arabera, mugikortasun hori ez zen klimaren mugen eta lursailak nekazaritzarako eta etxebizitza egonkorrerako suposatzen zituen mugen erantzun soila; haien behar fisiko eta espiritualei erantzuteko estrategia ere bazen, eta horrela bizirauteko baliabide elikagarriak eskuratu zitzaizkiren.

1564an Frantzisko Ibarra (Durango, Bizkaia) lurralde-ura urre bila heldu zenean, kolonizazioa hasi zen. Herri indigenen erresistentzia gorabehera, kolonizazioak eskualdean kontrola ezartzea lortu zuten eta biztanle batzuk herrixka edo arrantxoetan bizitzera behartu zituzten, beste batzuek ihes egin zuten. Hala hasi ziren lurrak bipiltzen eta mineralak erazten.

Eduardo Gudynas-ek (2010), *Imágenes, ideas y conceptos sobre la naturaleza en América Latina* saiakeran, kolonizazioak Europako natura menderatzeko ikuspegia ezarri zuela adierazi du; aberastasuna sortzeko ustiatu beharreko baliabidez gainezkako lur birjintzat jotzen zuten. Ikuspegi horrek sistematikoki natura ustiatzea suposatu zuen, proiektu kolonialarentzat ezinbestekoak ziren meatzaritza, nekazaritza eta basoak moztea bezalako jardueren bitartez (268-270 or.).

Misioa aldi berean natura «konkistatzea» eta herri indigenak «zibilizatzea» izan zen. Hainbat kasutan,

indigenak inguruko beste elementutzat hartzen zituzten. Horregatik, konkista eta kultura-inposizioa eskuz esku zebiltzan, inguruak eta jatorrizko herriak kontrolatzen zituzten (Gudynas, 271 or.).

Hiru mendetako kolonizazioaren ostean, 1821ean Mexiko Espainiako inperiotik independentzia lortu zuen, hala ere, herri indigenek ez zuten lurralde-justizia lortu, ezta lurraldea eta natura ustiatzeko baliabide gisa ikusteko joerarekin amaitzea ere. Horiek erazuten, eraldatzen eta «aurrerapen eta garapen ekonomikorako» erabiltzen jarraitu zuten.

Estatu-nazio berriak ere ez zituen herri indigenak aintzatesi. Yásnaya Aguilarrek (2023) adierazi duen bezala: «estatuaren betaurrekoentzat, herri indigenak juridikoki eta politikoki ikusezinak izan ginen» (29 or.). Mexiko independenteak politika estraktibistak garatzen jarraitu zuen, arbasoen lurraldeak estatuaren jabegotzat hartu baitziren eta ez jabe zilegien jabegotzat.

Lurdun gutxi batzuek lurrak pilatu zituztenez, biztanleria nekazaria lantzeko lurrik gabe geratu zen, horregatik Mexikoko Iraultza (1910-1920) antolatu zuten, banaketa bidegabe horri amaiera emateko helburuarekin. Horren emaitza gisa, 1917ko Mexikoko Konstituzioak nekazaritza-erreforma funtsezko hastapen gisa txertatu zuen.

Estatuak interes publikoaren alde lurrak desjabetzeko ahalmena lortu zuen eta usak sortzeko oinarriak jarri zituen. Usak jabetza kolektiboko herri-lurrak dira eta kide bakoitzak lursail bat berariaz erabiltzeko eskubidea du, izan nekazaritzarako edo etxebizitzarako.

Azkenik, Lázaro Cárdenasen (1934-1940) gobernuak lurrak nekazarien eta biztanleria indigenaren artean banatu zituen, nekazaritza-guneen bitartez: usak eta komunitateak. Usa Mexikoko historian eta nekazaritza-garapenean osagai garrantzitsua izan da eta, gizarte-justiziarako bidea izateko asmoa zegoen arren, gatazka-iturria ere izan zen. Nazio Batuetako herri indigenen eskubideetako errelatoreak (2018), Mexiko bisitatu ondoren, ondorengoa adierazi zuen:

«Usen, komunitate-lurren eta jabetza pribatuaren nekazaritza-erregimena eta horrek ezartzen dituen nekazaritza-instituzioak ez datoz bat herri indigenen beharrekin eta ez

daude gaur egungo Mexikoko nazioarteko betebeharrretara moldatuta. Izan ere, herri indigenek tradizioz izan, hartu, erabili edo eskuratu dituzten lurren, lurraldeen eta natura-baliabideen gainean dituzten eskubideak aitortzen dituzte» (18 or.).

Hortaz, nekazaritza-erreforma lurrak birbanatzeko politika izan zen arren, ez ziren herri indigenak lurraldeko biztanleria arbaso eta jabe gisa aitortu.

Estatuarentzak, herri indigenak juridikoki eta politikoki ikusezinak izan ginen.

Yásnaya Aguilar





Neoliberalismotik progresismora

1980ko eta 1990eko hamarkadetan Mexikon eredu neoliberalak ezartzeko Alderdi Iraultzaile Instituzionala (PRI) eragile gakoa izan zen. Lurralde indigenak bipiltzea areagotu zuten politika ekonomikoak sustatu eta egiturazko berdintasun ezak betikotu zituen. Garapenaren eta modernizazioaren hitzaldiaren pean, alderdiak kapital pribatuaren eta atzerriko kapitalaren interesen alde egin zuten, komunitate indigenen eskubideen gaintik. Hala, natura-baliabideen ustiapena arbasoen lurraldeen babesaren gaintik jartzen zuten sistema finkatu zuten. Politika horiek ez zizkieten soilik lurak lumatu komunitateei, tradiziozko antolaketa-ereduak ere desegin zizkieten; hala, haien autonomia ahuldu eta gaur egunera arte iraun duen bazterketa eta zaugarritasun ondarea utzi zuten.

PRIk politika neoliberalak finkatzen zituen bitartean, nazioartean 1989an Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169. Hitzarmena garatu zuten eta mugarririk izan zen herri indigenen eskubide kolektiboak eta autonomia aitortu zituelako. Izan ere, kultura indigenen babesari

garrantzia eman zion, garapen-lehentasan modu autonomoan erabakitze ahalmena eman zien eta, aurretiko kontsulta eta onespen aske eta informatuaren bidez, haiei eragiten dieten estatuko erabakietan parte hartze ahalmena eman zien (N. Ramírez Espinosa eta D. Cerqueira, 2020, 8 or.).

Mexiko hitzarmena onartu zuten herrialdeen artean lehenengotarikoa izan zen (1990). Ekintza hori indigenen eskubideen aitortuaren aurrerapausoa zirudien arren, modu mugatua ezarri zuten. 1992an, Carlos Salinas de Gortariren gobernuak Konstituzioaren erreforma bultzatu zuen eta Mexikoko nazioaren kulturantzatasuna aitortu zuen, baina herri indigenen determinazio askerako eskubidea ez zuen guztiz txertatu. Gainera, erreforma horrek usak saltzea ahalbidetu zuen, lehiakortasuna eta atzerriko inbertsioa sustatzeko argudiopean.

PRIk bultzatutako herri-lurren pribatizazioak enpresa handiei lurak metatzeko atea ireki zien, horrek komuni-

tate indigenen antolakuntza-modu tradizionalak ahuldu zituen eta haien elikagaien segurtasuna arriskuan jarri zuen. Aldi berean, PRIk ere bultzatutako 1992ko Meatzaritzaren Legeak Mexiko mineralak erazteko herrialderik erakargarrienetakoa bihurtu zuen. 1990 eta 2018 urteen bitartean, Ekonomia Idazkaritzak 46.000 meatzaritzariz emakida baino gehiago egin zituen, horietako asko lurralde indigenetan, Colectiva Cambiémosla Ya-ren arabera. Eredu estraktibista horrek atzerriko kapitalaren interesak lehenetsi zituen, Kanadako korporazioenak bereziki, eta, bien bitartean, komunitate indigenei baliabideak eta eskubideak bixpildu zizkien.

Politika neoliberal horiek ezartzeak herri indigenen erantzun antolatuak piztu zituen. 1994ko Askapen Nazionalako Armada Zapatistaren (EZLN) altxamenduak, Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna indarren jarri zuten unearekin bat egin zuenak, PRIren eredu estraktibista eta neoliberalaren kritika gogorraren adierazgarri izan zen. Mugimenduak Mexikoko gobernuak 1996an San Andreseko Akordioak sinatzera behartu zuen arren, autonomia indigenarako eskubide batzuk aitortzen zituena, PRIko gobernuaren borondate politiko ezagatik, xedapen gehienak ez zituen ezarri.

Geroago, «narkotrafikoaren aurkako gudak» lurralde indigenetan indarkeria areagotu zuen eta punturik kritikoen heldu zen Felipe Calderón eta Enrique Peña Nietoren gobernuen bitartean. Jada lurraldea bipiltzearen eragina jasandako komunitateak kartelen eta estatuko indarren liskarren eszenatoki bihurtu ziren, eta horrek autonomia eta gizarte-ehuna are gehiago narriatu zituen.

2018ko PRIren porrota Mexikon haren gailentasun politikoaren amaiera izan zen hamarkadetako hegemoniaren ondoren. Andrés Manuel López Obradorrek (AMLO) berdintasun eza murriztera eta ustelkeriaren aurka egitera bideratutako plataforma progresistarekin lehendakaritza hartu zuen. Bere agindupean (2018-2024), gizarte-politikak lehenetsi zituen, hala nola baztertutako komunitateentzako laguntza-programak, eta herri indigenen aldeko neurriak hartu zituen, esaterako, 2020tik aurrera meatzaritzariz emakida berriak emateko debekua eta toki sakratuetan zein kulturalki garrantzitsuetan aire zabaleko meatzaritzaren etetea, Ingurumen eta Natura Baliabideen Idazkaritzaren (SEMARNAT) eta Comisión Nacional de los Derechos Humanos (CNDH) txostenen arabera. Baina ez zituen jada abiatutako meatzaritzariz emakidak deuseztatu.

2024an, Claudia Sheinbaum lehendakari aukeratu zuten, Morenaren alderdiaren laguntzarekin, eta Mexikoko lehenengo emakume lehendakaria bihurtu zen. Sheinbaumek haren aurrekariaren politika progresistekin jarraitzeko promes egin du, besteak beste, indigenen kultura eta eskubideen inguruko San Andreseko Akordioak ezartzea (E. Camhaji, 2024ko otsailak 2, El País).

Tarahumara Mendilerroko komunitateentzat, lurraldea haien bizimoduaren, kulturaren eta biziraupenaren funtsezko oinarria da. Mexikon PRIk ezarritako politika neoliberalak eragin negatiboa izan dute haien lurraldean. Coloradas de la Virgen eta Choréachik erresistentzia azaldu dute eta haien lurraldea defendatzeko borrokatu dira, kasuen deskribapenean ikusiko dugun bezala.

*Askapen
Nazionalako
Armada
Zapatistaren
(EZLN)
altxamenduak
PRIren eredu
estraktibista eta
neoliberalaren
kritika gogorraren
adierazgarri
izan zen*



Coloradas de la Virgen: Lurraldeagatik borroka eta erresistentzia indigena

Coloradasen bizi izan gara, hemen jaio gara, gure seme-alabak kimua dira, zuhaitza bezala, eta batzuetan zuhaitzak zahartzen dira, lehortu egiten dira, baina kimuak jarraitzen du, eta hazi egiten da. Ni jada pixka bat zaharkitua nago, baina nire kimuak atzetik darraizkit. Julián Carrillo (Amnistia Internacionala, 2019, 9 or.).

Gaur egun, Coloradas de la Virgenen, hamar meatzaritza-emakida baino gehiago daude 50.000 hektareako azaleran. I. González (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Coloradas de la Virgen 49.500 hektareako lurraldea da, 850 rarámuri eta, neurri txikiagoan, ódami indigena bizi dira, 50 bat arrantxotan sakabanatuta.

Familia horien bizigaiak bizibide-nekazaritzan (artoa, babarruna, kalabaza, ilarra eta patata), ehizketan eta jakibilketan dauka jatorria. Familia batzuek baino ez dituzte etxe eta nekazaritza-lur propioak gune baxuetan. Abeltzaintza ere badago, nagusiki ahuntzena. Behi-azienda hiru eta bost behien bitartekoa izan ohi dute, eta egoera berdina da zama-animaliekin (astoak eta zaldia). Landa-

reak sendabelar eta landare espiritual gisa erabiltzeko ez ezik, elikatzeko beharra asetzeko ere biltzen dituzte.

ASMACen arabera, estatuaren presentzia ia hutsala da eta biztanleriak ez ditu giza eskubide oinarrikoenak asesta, hala nola osasuna, hezkuntza eta ingurumen osasuntsua.

Hamarkadetan zehar komunitate indigena jauntxokeria nagusiaren aurka borrokatu da. Jauntxokeria tokiko botere modua da eta komunitateko natura baliabideen eta gizarte-dinamiken gaineko kontrola izan du hainbat ha-



markadatan. Jauntxo nagusiaren familia bezalakoak buru dituen sistema horrek gailentasuna betikotzeko ahaleginak egin ditu, bortxa-metodoen, aliantza estrategikoen eta, sarritan, haien interesen aurka egiten dutenen kontrako intimidazioaren eta indarkeriaren bitartez, geroago ikusiko dugun bezala.

Jauntxokeria horrek pertsona armatuekin jazarpen- eta indarkeria-giroa mantendu ditu. Ez ditu soilik komunitatearen baso-ondasunak lumatu, jabegoak usurpatu eta eraikitak ere egin ditu. Segurtasun arrazoi zorrotzak dirrela eta, erasotzaileen izenak publikoki ez zabaltzeko erabakia hartu dute, autoritate arduradunek tartean egondako pertsonak identifikatu dituzten arren. Neurri horrek jada ikusitako eredu bati erantzuten dio: tartean egondako jauntxoa publikoki aipatzen den bakoitzean, indarkeria-ekintza gehiago egoten dira, eta horrek Coloradas de la Virgeneko komunitatearentzat eta defendatzaileentzat segurtasun-arriskua nabarmen larriagotzea eragiten du.

1934tik Coloradas de la Virgeneko biztanleria indigena Mexikoko estatuari haien lurrak ofizialki aitortzea eskatzen hasi zen. Hala ere, 1957ra arte, estatuak ez zion erantzunik eman, jada borroka horren buru izandako lider batzuk jada hil izan arte. Garai hartako autoritateek baso-guneko zati bat usa gisa erregistratu zuten eta lur horien

gainontzeko zatia nekazaritza-komunitate gisa sailkatu zuten (Thelma Gómez, 2022ko martxoak 16, *Tarahumara acumula defensores asesinados y familias desplazadas ante la indiferencia del Estado*, Mongabay).

1992an usa-kideen zerrenda eguneratzeko helburua zuen asanblada egin zuten. Hala ere, ohiko administrazio-prozedura zirudiena iruzur eta manipulazio eredu bihurtu zen, komunitate indigenaren eskubide kolektiboaren aurka. Asanbladaren bitartean jazotako irregulartasunak zirela eta, akordio-aktan jada hildako pertsona indigenen sinadurak eta aztarna digitalak agertu ziren. Asanbladaren ondorioz, 78 kide berri sartu ziren usan, gehiengoa jauntxo nagusiaren abizena zuen familia batekoa, eta horiek ez ziren rarámuri indigenak, tokiko jauntxoaren senideak baizik (Amnistia Internacionala, 2019, 5 or.).

Julián Carrillok, Coloradaseko polizia-komisarioak, eta, hortaz, lurraldeko segurtasunaren komunitate-arduradunak, komunitateko beste kideekin batera, asanbladan gertatutako irregulartasunak salatu zituen. Une hartatik, Julián Carrillo Coloradas de la Virgeneko lurraldeko defentsan pertsona adierazgarri bihurtu zen, eta ustelkeriaren, kanpoko interesen inposizioaren eta komunitatearen antzinako eskubideak bortxatzearen aurkako borrokaren burua izan zen.

1990eko hamarkadan, legez kontrako gero eta jarduera gehiago zegoenez, hala nola basoak ezkutuan moztea eta eskualdean interes ekonomikoari lotutako talde armatuen indarkeria, lehenengo bortxazko desplazamendua gertatu zen. Rarámuri familia indigenek etxea uztera behartuta ikusi zuten haien burua, segurtasun gabezia eta haien lurren gaineko presio gero eta handiagoa zela eta.

Erail zuten lehenengotarikoa Julio Baldenegro izan zen, 1986an, Coloradas de la Virgeneko rarámuri indigena eta gobernatzaile tradizionala zen, haien komunitatea basoz eta lurraldez lumatzearen aurkako. Julio hil eta gero, haren semeak, Isidro, 20 urterekin aitaren konpromisoa hartu zuen basoaren defendatzaile gisa eta 1993an Fuerza Ambiental sortu zuen, Chihuahuaiko Sierra Madreko ezkutuko baso-mozketaren aurka borrokatzeko erakundea (Isaac Molina, 2022, *Los Baldenegro: familia perseguida y asesinada por defender el bosque*).

2007an, SEMARNATEk usari baso-ustiapenerako baimenak eman zizkion eta, gainera, Meategien Zuzendaritza Nagusiak lurraldeko meatzaritza-esplorazioetarako zenbait baimen eman zituen. Ekintza horiek komunitateei aurretiko kontsulta aske eta informatua egin gabe egin ziren, LANeren 169. Hitzarmenak hala agindu arren. Testuinguru horretan, rarámuri eta ódami komunitateak lurrez eta natura ondareaz lumatzeagatik, gatazkak areagotu egin ziren.

Handik aurrera, Coloradas de la Virgeneko komunitateak haren lurraldean natura-baliabideak ustiatzearen kontrako legezko borroka ekin zion Nekazaritza-Auzitegi Bateratuaren aurrean. Ondorioz, jada 1990eko hamarkadatik komunitatearekin lanean zebiltzan ASMACeko kideak eta Coloradaseko biztanleria mehatxuak jasotzen hasi ziren.

2011 eta 2014 urteetan, eskualdea kontrolpean zuten talde kriminalen hedapenaren eta legez kontra basoa moztearen ondoriozko indarkeriak berriz ere biztanleriaren bortxazko desplazamendua eragin zituen. 2011n, I. Gonzálezek mehatxu zuzena jaso zuen komunitateko kideak lagundu zituen Nekazaritza-Auzitegi Bateratuko en-

tzunaldi batetik irten ostean. Jauntxo nagusiaren semea, Coloradas de la Virgeneko botere-taldeetako liderretako bat bezala identifikatua, Isela eta laguntzen zuen pertsonarengana hurbildu zen eta, rarámuriak laguntzen jarraituz gero, erailko zituztela jakinarazi zien.

Julián Carrilloren erailketak haserrea eta ardura eragin zituen nazio zein nazioarteko mailan, lurraldea defendatzearen arriskuak agerian utziz

Komunitateak eta giza eskubideen defendatzaileek egindako salaketak gorabehera, 2013an tokiko jauntxoek erasoak areagotu zituzten eta rarámuriei zuzenean Coloradas de la Virgeneko komunitatea uzteko agindua eman zieten. Tokiko botereen lurraldeko kontrolak bultzatuta, bortxaz joanarazi zituzten eta horrek kaltetuen artean beldurra hedatu zuen, errepresalia fisikoak saihesteko haien burua lurraldea uztera behartuta ikusi zuten.

Arriskua gero eta handiagoa zenez, Giza Eskubideen Defendatzaileak eta Kazetariak Babesteko Mekanismoaren bitartez Gobernu Idazkaritzak esku hartzea eskatu zuten. Mekanismo hori defentsan aritzeagatik mehatxuei aurre egin behar die-

tenen segurtasuna bermatzeko diseinatutako programa da. Horrenbestez, Julián Carrillo, rarámuri defendatzaile nabarmena, komunitate indigenako hiru kide eta ASMACeko bi kide babesteko neurri bereziak ezarri zituzten.

2015eko uztailan, Babes Mekanismoak 107/2014 / DO - Ohiz Kanpoko Arriskua Espedientearen bidez arriskua kolektiboki ebaluatu zuen eta babes-neurriak ezarri zituen, hala nola satellite-telefonoak, izu egoerarako sakagailuak, lekualdaketetarako polizia eskoltak, ASMACeko kideen bulegoak eta etxeak babesteko egiturazko neurriak, eta bestelako babes-neurriak (zehaztugabeak) ezartzeko instituzio federalen eta estatuko instituzioen arteko mahaia ezartzea.

Eskatutako babes-neurriak gorabehera, 2015eko abuztuan, Santiago Quiñones Cruz, Juliánen koinata, erail zuten.

2016an erailketa gehiago egon ziren. Hala, otsailaren 5ean, Víctor Carrillo, Juliánen semea, erail zuten, izan ere, bere aitaren pausoak jarraiki lurraldea babesteko

borrokan aritzeagatik, interes ekonomikoei eta krimina-lei lotutako taldeen erasoen helburu bihurtu zen. Apirilean, Eldipio Torres Molina, Coloradaseko komunitateko polizia-komisarioa, erail zuten, eta gauza bera gertatu zitzaien maiatzean Valentín Carrillo Palmari eta Crescencio Molinari, Coloradaseko gobernadore indigena ohiei. Uztailan, Guadalupe Carrillo Polanco, Juliánen iloba, ere erail zuten.

Urte horretan bertan, Juliánek bere etxeko inguruak behatzen zegoen talde armatu baten eta bere familiak jasotzen zituen mehatxuen berri eman zuen, us-tez, Víctor bere semea erailtzeagatik atxiloketa-agindua betetzeke zuenak bidalita.

2017ko urtarrilean, Isidro Baldenegro López erail zuten, Julio Baldenegro rarámuri aktibistaren semea. Isidro Goldman Saria irabazi zuen komunitateko antzinako basoak babesteko eta ingurumenaren defentsan egin-dako lanagatik. Gero, urte bereko martxoaren 31n eta uztailaren 30ean, Julián Carrilloren bi iloba erail zituzten, Antonio Alberto Quiñones eta Guadalupe Carrillo Polanco.

2017ko abenduaren 14ak Coloradas de la Virgeneko komunitatearen borrokan mugarría ezarri zuen, lurraldeko baso-ustiapen jarduera guztiak eteteko justizia-ebazpena lortu zutelako, eta zehazki basoak moztea debekatu zuten. Gainera, SEMARNATEko autoritateek kontuan izan ez zuten aurretiko kontsulta aske eta informaturako komunitatearen eskubidea bermatu gabe, ezin izango zituzten baimen berriak onartu.

Baina, aurrerapauso legal horri erantzunez, tokiko jauntxoek, udalerriko botere politikoaren laguntzarekin, legez kontrako baso-ustiapena areagotu zuten. I. Gonzálezek adierazi zuenaren arabera, legez kontrako baso-mozketa ez zen soilik basoentzat larriki kaltegarria izan, Tarahumara Mendilerroko ohiko eredia ere agerian utzi zuen: legezko bideen bitartez interes ekonomikoak gailendu ezin direnean, kontrola mantentzeko indarra eta suntsipena darabiltzate (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Legez kontrako baso-mozketa praktikak publikoki zabaltzean, González berriz ere jauntxoaren jazarpenen eta mehatxuen helburu bihurtu zen. Bere eta bere lantaldearen segurtasun-arriskua nabarmen areagotu zen ekintza horien ondorioz, horregatik, Giza Eskubideen Defenda-

tzaileak eta Kazetariak Babesteko Mekanismoak haien babesa bermatzeko neurri gehigarriak ezarri zituen.

Hala, erasoek jarraitu egin zuten eta 2018ko uztailaren 1ean beste erailketa bat jazo zen, Francisco Chaparro Carrillorena, Julián Carrillo suhiarena. Urte bereko urriaren 24an, gauez, Julián Carrillo Martínez tiroka erail zuten jauntxoaren zerbitzuetara zeuden lau sikariok. Juliánek, komunitateko liderra zenez, erailketa unean Giza Esku-

bideen Defendatzaileak eta Kazetariak Babesteko Mekanismo Federalaren babes-neurriak zituen.

Julián Carrilloren erailketak haserrea eta ardura eragin zituen nazio zein nazioarteko mailan. Hori dela eta, Mexikoko estatuak Tarahumara Mendilerroko giza eskubideen defendatzaileen eta komunitate indigenen babeserako segurtasun-planak eta neurriak hitzeman zituen.

Segurtasun-planak ezartze-ko eta komunitateei babes-neurriak eskaintzeko konpromisoak gorabehera, errealitatean ekintzak nagusiki erreaktiboak izan dira eta ez dute lortu giza eskubideen defendatzaileen eta komunitateen defentsan aldaketa esanguratsurik sortzea. Hala, 2019ko otsailean, José Trinidad Baldenegro, rarámuri indigena, emazte eta seme-alabekin batera bortxaz Baborigame-ra, Chihuahua, joan zen. Handik, Coloradas de la Virgenen bizitzen zuten egoera gogorraren inguruan hitz egin zuten.

Urteak pasata, 2022ko martxoaren 7an, gizon-talde batek José Trinidad Baldenegro, Julio Baldenegoren beste seme bat, erail zuen. Baldenegro familian erail duten hirugarren senidea da. Tiro egin zuten gizonek etxeari ere su eman zioten.

2022ko abuztuan, auzi luze eta korapilatsuaren ostean, komunitate indigenak garaipen garrantzitsua lortu zuen nekazaritza-azitegi kolegiatuetan. Jauntxo nagusiaren aurka eman zuten irizpena eta legez basoa ofizialki ustiatzea debekatu zuten. Hala ere, justizia epaia onartu beharrean, baso-baliabideak ustiatzen jarraitzeko legez kontrako praktiketara jo zuen familiak erantzun gisa. Lurraren defendatzaileek (asko mehatxuengatik eta indarkeriagatik desplazatutakoak) aurkeztutako hainbat salaketa gorabehera, familiak jarduera horrekin etengabe jarraitu du eta autoritateek ez dute eskurik hartu.

Gaur egun, Coloradas de la Virgenen, hamar meatzaritza- emakida baino gehiago daude 50.000 hektareako azaleran

Babesa bermatzeko auzitan ibiltzea

Babes Mekanismoak ezarritako ekintzen baitan, 2022ko azaroan babes-plana sortu zuten, baina inoiz ez zuten abian jarri. Utzikeria horren aurrean, 2024an babes-neurriak betetzea eskatzeko babesa sustatu eta lortu zuten. Gainera, komunitateko kideek laguntza humanitaria jasotzeko eta desplazamendua eteteko, etxebizitza seguruak eta duinak eskaintzeko, eta lurraldera duintasunez eta modu seguruan itzultzeko ekintzak burutzeko agindua eman zien epai horrek autoritate arduradunei. Amada Chávez, birritan desplazatutako rarámuri indigenak, komunitateak lurraldearen eta ingurumenaren gainean dituen eskubideen defendatzaileak, ondorengo adierazi du:

«Gu jada birritan desplazatu izan gara. Lehenengo aldiz, koinata erail zutelako; bera ere komunitatean borrokan aritzen zen, komisarioa zen eta, erail zuten urte horretan ere, irakasleek ospa egin zuten», haren komunitatea gainezkutzen hasi zen indarkeria-krisiari erreferentzia eginez adierazi du (Laura Ochoa, 2024ko maiatzak 8, Indígenas raramuris, defensoras de la Sierra Tarahumara. Caso Coloradas de la Virgen, Cimac Noticias).

Babeserako tokiko eta estatuko autoritateen konplizitatea edo zabarkeria argi eta garbi geratzen da, estatuak oraindik ez baitio legez kontrako jardueren jarraipenari erantzun aproposik eman.





Choréachi (Pino Gordo): Bipiltzea eta komunitatearen babesa

«Geure lurretan jazarpena jasaten dugu. Gure lurraren jabe garela ziurtatzen duen dokumenturik ez daukagula esaten digute». Prudencio Ayala Chaparro (Jaime Armendariz, 2021eko ekainak 15, Raichalí Noticias).

Choréachi komunitate indigena Guadalupe y Calvo udalerrian kokatuta dago eta 800 gizonezko eta emakumezkoek osatzen dute, 250 inguru haurrak dira.

Komunitatearen isolamendu-egoerak entitate publikoen aurrean edozein kudeaketa egitea zailtzen du, izan ere, Guadalupe y Calvora heltzeko 50 kmko bide menditsu eta zaila egin behar dute. Egoera horrek ez du soilik oinarriko zerbitzuetara sarbidea zailtzen, eskubideak modu eraginkorrean babesteko ere traba bada.

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) arabera, Mexikoko estatuak lurraldearen antzinako jabetza ez duenez legez onartu, Choréachi «izatezko komunitatetzat» hartu izan dute (ASMAC). Hala izan zen 2018an, urteetako borroka eta gero, aitorten ofiziala izatea lortu zuten arte, eta aurrerapauso adierazgarria izan zen eskubideen defentsan. Jarraian, kasu hori azalduko dugu, ez soilik lurraldearen aitortenari dagokionez, baita natura ondareak babesteko eta indarkeriaren zein ustiapenaren aurrean segurtasuna mantentzeko komunitateak aurre egin beharreko erronkei dagokienez ere.

1969an, Mexikoko gobernuak Choréachiko rarámuri komunitatearen antzinako lurraldearen zati bat Coloradas de los Chávezeko komunitate mestizoari eman zion, rarámuriei kontsulta egin gabe. Horrek lurrगतिक eta baso-baliabideengatik lurralde-gatazka luzeak eztanda egitea eragin zuen. Handik aurrera, Choréachiko komunitatea etengabe egon da haien basoak legez kontra ustiatzea eragozteko borrokan, Nekazaritza Auzitegietan eta Distritu Auzitegietan ekintza juridikoen bidez eta Ingurumenaren Babeserako Prokuradoretza Federalean ekintza administratiboen bitartez. Basoak defendatzeko mobilizazio politikoak egin dituzte, Guachochi hirira heltzeko gizon, emakume eta haurrek egunak ibiltzen eman dituzte, han-

dik autobusez Chihuahua, estatuko hiriburura, joateko. Egora horrek komunitateko kideen eta liderren aurkako indarkeria, mehatxuak era erailketak eragin ditu, ondoren zehaztuko dugun bezala.

Coloradas de la Virgeneko kasuan bezalaxe, 2006an SEMARNATEk Coloradas de los Chávezeko nekazaritza-komunitateari Choréachiko basoen gaineko ustiapen baimena eman zion. Hori egitean, baso-legea urratu zuen eta komunitateko biztanleria indigenaren eskubideak bortxatu zituen. 2007an, komunitateak Nekazaritza Auzitegian salaketa egin zuen Choréachiko indigenen antzinako jabetza aitortzeko eta baso-baimena deuseztatzeko.

Loera Chávez familiaren lurraldearen gaineko gailentasun bortitza

Coloradas de los Chávezeko jauntxoek ingeniariaren, baso-enpresen, Chihuahuaiko estatuko Kongresuko tokiko diputatuen eta Alderdi Iraultzaile Instituzionala - PRIko udalerriko autoritateen laguntza izateaz gain, antolatutako krimenarekin loturak zituzten. Eragile horiek sikarioak haien zerbitzupuan zituzten eta, komunitateko buruen, autoritate indigenen eta ASMACeko langileen aurkako intimidazioaren eta mehatxuen bitartez, Choréachiko komunitatearen ekintza legalak eteten saiatu ziren.

2007tik baso-ustiapenerako baimenak bertan beherra geratu ziren arren, komunitate kanpoko pertsona armatuek baso-ustiapen lanak egin zituztela dokumentatu dute (ASMAC).

2013tik aurrera, Choréachiko komunitatea eraso, jazarpen eta mehatxu etengabeen biktima izan da, lurraren ustiapenean interesak zituzten eta narkotrafikoarekin lotutako talde kriminalak egoteagatik ezaugarritutako testuinguruan. ASMACen arabera, talde horiek komunitatea lumatzeko eta botatzeko helburua dute, guneko baso-baliabideak ustiatzeko.

2013ko irailean, Ángela Ayala Ramosen etxean zerbait ospatzen zeudela, Coloradas de los Chávezeko komunitate mestizoko kide batzuek Jaime Zubia Cevallos-i, Ángelaren senarrari, tiro egin eta erail zuten. Urte bereko azaroan, Loera Chávez familiako kide batek Socorro Ayala Ramos bere etxean erail zuen. 2014ko irailean, armadun gizon bat Prudencio Ramos Ramosen etxera joan zen haren bila eta Prudencio bere familiarekin batera sakan (arroila) baten baitan ezkutatu behar izan zen, eraso egingo zieten beldur. Aipatutako biktimak Choréachiko rarámuri komunitate indigenako kideak ziren, haien antzinako lurraldearen defentsarekin konprometituak.

2014ko abendua inflexio-puntua izan zen, komunitatean indarkeria-ohartarazpenak egon ziren eta bi gazte erail zituzten. Muturreko arrisku-egoeragatik, 2014ko urriaren 6an CIDHEk kautelazko neurriak ezarri zizkion komunitateari.

2015eko urtarrilean, Prudencio Ayala bilatzen zuen berrogei pertsonako talde armatu batek Prudencio Ramos eta komunitateko beste kide batzuk mehatxatu zituen. Urte bereko urrian, jazarpena areagotu zen, animaliak erasotu zituzten, ospa egiteko esanez mehatxatu zituzten eta emakumeen eta haurren aurkako indarkeria zuzena egon zen. Garai hartan, Ángela Ayalaren etxeari eta tokiko eskolari tiro egin zieten, pertsona armatuek etxera sartzeko eskatu ostean.

2015eko azaroan, G. L.ren familia oraindik ere Ángelaren bila zebilela eta itzultzean hiltzeko mehatxu egin zuela esan zioten Ángelari. Horregatik, bi urtez bortxazko desplazamendu egoeran egotera behartuta ikusi zuen bere burua. 2016ko maiatzean, armatutako gizon-talde batek Porfirio Cruz Ramosen etxea erasotu zuen, ondasunak lapurtu eta erre zizkion, eta familia ezkutatu behar izan zen. Urte bereko ekainean, beste hiru hildakoren berri eman zuten komunitatean eta autoritateek ez zuten erantzun aproposik eman.

2017ko urtarrilean, kaputxa eta armadun gizonak Ángela Ayalaren dendan oldarka sartu ziren bere inguruko informazioaren bila, eta ahizpak alde egin behar izan zuen. Gero, 2017ko otsailean, Juan Ontiverosek, komunitateko polizia-komisarioak, erailketa-mehatxuak jaso zituen eta, azkenean, erail zuten.

Choréachi komunitateak aurre egin beharreko indarkeria-egoera etengabearen aurrean, 2017ko martxoaren

25ean, Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiak (IDH Auzitegia) komunitateko kideen bizitza, integritatea eta segurtasuna bermatzeko behin-behineko neurriak hartzeko agindua eman zion Mexikoko estatuari. Amerika Arteko Auzitegiak komunitatearentzako izaera kolektiboko behin-behineko neurriak ezartzea aurre egin beharreko arriskuen eta zaugarritasunaren aitortpena ez ezik, autoritateentzako agindu argia ere bada, haien eskubideak defendatzeagatik komunitatearen babeserako neurri zehatzak eta eraginkorrak hartzeko agindua, hain zuzen ere.

Mexiko komunitate indigena bati ezarritako izaera kolektiboko behin-behineko neurri bakarrak dira horiek. Gainera, autoritate federalek eta estatuko autoritateek komunitateko diagnostiko sozioekonomikoa eta kulturala egin eta eguneratu behar izan zuten. Horrekin batera, autoritate federalek eta estatuko autoritateek Choréachiko komunitate indigenaren ezauzgarri zehatzak ezagutzea lortu zuten, eta babeserako aurre egin beharreko erronken gaineko informazioa ere. Kasu hau ez da soilik garrantzitsua komunitate zehatz bati emandako babesagatik, baizik eta baita herri indigenen eskubideetarako

aurrekaria ezartzen duelako, aitortpenari eta estatuaren ekintzari dagokienez.

Hogei urte eta gero, 2018an, Nekazaritza Auzitegi Gorenak (TSA) aho batez onartu zuen Choréachiko rarámuri komunitatearen 32.832 hektareako lurraldea, eta lurralde horren baitako natura-baliabideen gaineko eskubidea berretsi zion. Ebazpen horren arabera, beste nekazaritza-komunitateek eta enpresa pribatuek ezin dituzte gune horretako basoak ustiatu.

*Amerika Arteko
Giza Eskubideen
Auzitegiak
komunitateko
kideen bizitza,
integritatea eta
segurtasuna
bermatzeko
behin-behineko
neurriak hartzeko
agindua eman
zion Mexikoko
estatuari*

Auzitegiaren epaiak Choréachiko komunitateari lurraldearen jabetza aitortu zion. Baina, Mexiko parte den nazioarteko itunak eta hitzarmenak Konstituzioaren hierarkia-maila berean jartzen dituen 2011ko Konstituzio erreformaren aurka, Nazio-ko Justizia Auzitegi Goreneko (SCJN) Bigarren Epaimahaiak epaia balio gabetzeko agindua eman zuen. SCJN justiziarako azken instantzia denez gero, Giza Eskubideen Amerika Arteko Sistemara jo behar izan zuten berriz ere, ebazpen horrek suposatzen zituen eskubideen bortxaketen aitortpena lortzeko.

2020ko ekainean, Amerika Arteko Auzitegiak beste behin-behineko neurrien gaineko ebazpen bat egin zuen eta, Choréachiko komunitateko ki-



deen bizitza eta babes-pertsonala babesteko alde aurretik ezarritako neurriak ezartzen jarraitzeko agindua eman zion Mexikori.

2020ko irailean, Coloradas de los Chávezeko langileek haien lurraldea inbaditu eta 104 hektareako eremua hesitu zutela salatu zuen komunitateak. «Mikroarro estrategikoak berreskuratzea» izeneko proiektuari lotuta egon zen ekintza hori. 2020ko maiatzaren 11n Nazioko Baso Batzordeak (CONAFOR) behar ez bezala baimendu zuen proiektua, lur horiek gatazka-egoeran egon arren, Justizia Auzitegi Gorenaren ebazpen legalaren zain. Choréachiren aurretiko onespren aske eta infor-maturako eskubidea ere ez zen errespetatu. Gatazka horren ondorioz, Isela Gonzálezen aurkako difamazio-kanpaina ere egin zuten, Coloradas de los Chávezeko nekazaritza-komunitatearen legezko ordezkariak bultzatuta eta komunikabide desberdinen artean gauzatuta.

Gaur egun, IDH Auzitegiak emandako behin-behineko neurriak ditu komunitateak eta, Isela komunitate horretan zegoen bitartean jasotako mehatxuen ondorioz, bere segurtasuna bermatzeko behin-behineko neurrietan bera ere txertatzeko eskaera egin zuten (IDH Auzitegiaren ebazpena 2023/12/12).

IDH Auzitegiaren ikuskapeneko behin-behineko neurrien arabera, estatuak hiru hilabete behin betetzen dituela egiaztatzeko txostena aurkeztu behar du. Egoera hori dela eta, Iselarentzako segurtasun-protokoloak indartu ziren, besteak beste:

- Babestutako bidaia gehiago: Lehen, Choréachiko komunitatera egindako bidaietan baino ez zeukan babesa. Orain, eguneroko bidaia guztiak sartzen dira, hala nola etxetik bulegora edo bileretara joatea, betiere polizia-agenteez eskolta emanda.

- Instituzioen arteko koordinazioa: Babeserako ekintzak gobernu federalak eta estatuko gobernuak kudeatzen dituzte elkarlanean.

- Segurtasun-kamerak: Bere segurtasuna areagotzeko, etxebizitzan jarri ziren.

Choréachin segurtasun-neurriak daude, hala nola komunitatetik hirira edo mendilerroko beste tokietara bidaietan laguntzea. Neurri horiek, nagusiki, arrisku handiko pertsonentzat dira, esaterako, komunitateko autoritateak, itzultzaileak eta komunitatean presentzia publiko handiagoa dutenak.

Gainera, komunitateari Ministerio Publiko Ibiltaria ezarri zioten jazarpenak jorrazteko eta horiek salatzea errazteko. Ekimen horrek aldaketa handia suposatu zuen, izan ere, lehen ez zuten ministerio publikoen bisitarik izaten. Ministerioko poliziak baino ez ziren joaten eta, batzuetan, sei hilabete ere igarotzen ziren berriro itzuli arte. Hala ere, estatuko gobernuak eta gobernu federalak Choréachin azpiegitura gehiago garatzen hasi dira, osasuna eta hezkuntza bezalako oinarriko zerbitzuak hobetzeko helburuarekin, eta eskualdean presentzia handitu dute. Egoera hori eta Coloradas de la Virgeneko komunitatea bezalako beste komunitateen egoera oso desberdina da, bigarrenek ez dutelako halako neurriak.

Choréachiren kasuan behin-behineko neurriak eraginkorrak izan dira basoaren legez kontrako mozketaren eragozteko lortu dutelako; eta, bestalde, ez da defen-datzaileen aurkako eraso hilgarri gehiagorik egon. Prozesuak luzeak diren arren, behin-behineko neurriak eraginkorrenak dira (I. González, komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Hogei urteko borroka eta gero, 2018an, Nekazaritza Auzitegi Gorenak (TSA) aho batez onartu zuen Choréachiko rarámuri komunitatearen 32.832 hektareako lurraldea



Giza eskubideen defendatzaileak babesteko tresnak

Giza eskubideen defendatzaileen babesa nazioarteko mailan 1999ko Giza Eskubideen Defendatzaileen Ingu-ruko Nazio Batuen Deklarazioan oinarritzen da, horren arabera, guztiek eskubide horiek sustatzeko eta babes-teko eskubidea eta betebeharra dute. Deklarazioak giza eskubideen defendatzaileen lana demokraziarako eta zu-zenbidezko estaturako ezinbestekoa dela azpimarratzen du, eta ez da estatuen ardura soilik, estatukoak ez diren eragileena eta nazioarteko lankidetzarena ere bada.

Giza Eskubideen Amerika Arteko Sisteman, Komisioak zein Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiak baliabi-de gehigarriak eskaintzen dituzte. Auzi arloan eta babes-neurriak (kautelazkoak eta behin-behinekoak) ematean, Amerika Arteko Sistemak nazioarteko estandar garrantzitsuak sortu ditu, horietako batzuk zehazki emakume defendatzaileen inguruan eta, bereziki, Mexikoren ingur-uan. Zentsu horretan, aztertutako kasuei buruz adiera-zitakoaz gain, Digna Ochoa¹ kasuaren inguruko epaiak arreta berezia merezi du.

Latinoamerikako zenbait herrialdek, besteak beste, Mexi-kok, giza eskubideen defendatzaileak eta kazetariak ba-besteko mekanismo espezifikoak ezarri dituzte. 2012an, Mexikok Giza Eskubideen Defendatzaileak eta Kazetariak Babesteko Mekanismoa ezarri zuen, mehatxuak jasaten dituztenak babesteko diseinatua. 2019an, mekanismo horrek 31 estatutan 903 pertsona babeste zituen, eta au-rrerapen garrantzitsua izan den arren, muga handiak ere baditu.

Chihuahuan, Giza Eskubideen Bortxaketetan Espezializa-tutako Ikerketa Fiskaltza tokiko beste babes mekanismoa da eta indarkeria testuinguruetan aktibistak babesteko laguntzen du. 2017an sortutako fiskaltza horrek Defen-datzaileentzako Babes Unitatea barne hartzen du eta batzuetan segurtasuna bermatzeko defendatzaileei bi-daietan eskolta ematen die. Eskualdean erantzuten duen arren, indarkeria gero eta handiagoa denez, bere eginki-zuna mugatuta dago.

¹ Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegian Digna Ochoa eta senideen kasua Mexikoren aurka haren heriotzaren ikerketan egondako gabezieta eta familiaren justiziarako sarbide-ezan oinarritzen da. Digna Ochoa, giza eskubideen defendatzaile entzutetsua, 2001ean hilda aurkitu zuten, eta ikerketek irregulartasun ugari izan zituzten, hala nola akastun babes-kateak eta testiguentzako babes-neurrien falta. Auzitegiak oinarritzko eskubideen bortxaketak adierazi zituen, besteak beste, bizitzarako, segurtasun pertsonalerako eta justizia-bermeetarako eskubideak, eta giza eskubideen defendatzaileen babesean estatuaren zabarkeria azpimarratu zuen. Dokumentu osoa hemen ikusi dezakezu: <https://www.scjn.gob.mx/derechos-humanos/sites/default/files/resumenes-sentencias-coidh/2022-02/Serie%20447%20Caso%20Digna%20Ochoa%20y%20familiares%20Vs.%20M%C3%A9xico.pdf>



Babesa bermatzeko erronkak

«El Salvador, Guatemala, Honduras eta Mexikon, 2012 eta 2022 urteen artean dokumentatutako erasoen % 19,2 jada babesneurriak zituzten defendatzaileen aurkakoak izan ziren. Gainera, denbora-tarte berean 349 erasok kautelazko neurriak ez betetzearekin zuzeneko lotura izan zuten (IM-Defensoras, 2024, 56 or.).

Datu horiek defendatzaileen etengabeko zaugarritasuna ez ezik, babes-neurriak ezartzean hutsuneak ere islatzen dituzte. Mexikoko Giza Eskubideen Defendatzaileak eta Kazetariak Babesteko Mekanismoa babeserako neurria besterik ez da, Gizarte Zibileko Erakundeen Guneko (OSC Gunea) erakundeek azaltzen duten bezala, egitura osatuago eta integralago baten pieza bat besterik ez da izan behar, eta giza eskubideen defendatzaileen eta kazetarien eskubideen bortxaketen prebentzio, arreta, ikerketa, zigor eta ordainen politika publikoaren bitartez eraiki behar dute egitura hori (*Protección integral para personas defensoras de derechos humanos y periodistas: la deuda del Estado mexicano*, 2017, 64 or.). Giza eskubideen norbanako eta komunitate defendatzaileak babes-tereko ekintza argiak artikulatzen dituen politika integrala

ez izatea da herrialde horren eta Latinoamerikako beste herrialde batzuen muga nagusia.

Mekanismoa aurrerapen esanguratsua den arren, ez du babesaren berezko konplexutasuna jorratzen, izan ere, egiturazko erreformak behar dira mekanismoak benetako eragina izan dezan eta giza eskubideen defendatzaileen beharrei erantzun diezan, askotan, indarkeria eta inpunitate testuinguruetan.

Gaur egun, ezarritako neurriak erreaktiboak eta noiz-behinkakoak dira, hortaz, arazoa egitura osoan jorratzeko ahalmen mugatua dute; hutsuneak daude erasoak prebenitzeko orduan eta norbanako zein komunitate defendatzaileak etengabeko zaugarritasun egoeran geratzen dira. Esaterako, Babes Mekanismoaren ikuspuntua batez

ere jada gertatu diren erasoek erantzuna ematean oinarritzen da, eta horiek sortzen dituzten egiturazko arrazoiak ez ditu jorratzen.

Mekanismoak bizitzak babestu ditu, hala ere, pertsona eta komunitate jakin batzuek dituzten arrisku espezifikoek aurre egiteko ez da nahikoa (*Diagnóstico sobre el funcionamiento del Mecanismo de Protección para Personas Defensoras de Derechos Humanos y Periodistas*, 2019). Kasu adierazgarriek, hala nola Coloradas de la Virgeneko Julián Carrillorenak, mekanismoaren eraginkortasun txikia islatzen dute. Mekanismoak huts egin zuen, urrutiko komunitateetan etengabeko mehatxuko eta estatua- ren gabeziak testuinguruan, ez zuen babes proposa eskaini. I. Gonzálezen arabera, erronka nagusietako bat «babes mekanismoak eraginkorrak izatea» da eta, mekanismoa onartzean, estatuari betetzea eskatu behar ez izatea. «Mekanismoko Gobernu Batzordeak neurriak onartu eta gero ere betetzea automatikoa ez izatea kezkarria da; horiek ezartzea eskatzeko, biktima askok prozesu judizialera jotzera behartuta ikusten duten haien burua» (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5). Eraginkortasun ezak defendatzaileak mekanismoa «hortzik gabeko lehoi edo minbizirako aspirina» gisa hautematera era-

maten dituzte (*Diagnóstico sobre el funcionamiento del mecanismo*, 2019, 27. or.).

Bestalde, defendatzaileek mekanismoa zalantzan jarri dute, haien arabera, testuinguru batzuetan, babestu beharrean, arriskuak areagotu ditzake. Estatuaren interesen eta interes pribatuen arteko kolusioak eta ustelkeriak ezaugarritutako testuinguruetan, ezarritako neurriak kaltegarriak izan ohi dira. D. Arguetak, Euskadin erbestera-tutako defendatzaile hondurastarrak, ondorengo hausnartu du: «Noren zerbitzuan dago mekanismoa? Bertha Cáceresek babes-neurriak zituen erail zutenean. Hala ere, defendatzaileok mekanismoan esku hartu nahi dugu, ez eraginkortasunaz guztiz fidatzen garelako, baizik eta jasaten ditugun mehatxuak formalki jasota uzteko tresna erabilgarria delako» (komunikazio pertsonala, 2024ko azaroak 29).

Jarraian, mekanismoko onuradun diren defendatzaileek eta giza eskubideen erakunde defendatzaileek planteatutako zenbait egoera aurkezten dira. Horietako askok Mexikoko estatuak Tarahumara Mendilerrokoak bezalako komunitateak sistematikoki abandonatzen dituela islatzen dute. Zenbait txostenetan bildutako egoera horiek giza eskubideen defendatzaileak modu eraginkorrean babestea bermatzeko erronka nagusiak azaltzen dituzte.

Estatuaren kontraesanak / Instituzioen indarkeria

Paradoxa nagusietako bat da, estatuko instituzio batzuek babes-neurriak garatzen dituzten bitartean, beste batzuek erasotzaile bezala aritzea, horrela defendatzaileentzako eta kazetarietarako arriskua betikitzen dute. Horrek difamazio-kanpainak, kriminalizazioa eta, batzuetan, defendatzaileen aurkako zuzeneko indarkeria barne hartzen ditu. Kontraesan horiek politika publikoen arteko koherentzia gabeziaren isla dira eta eskubideen berme gisa estatuan dagoen konfiantza ahultzen dute. Gainera, egoera horrek babes mekanismoak legitimitate txikiagoarekin hautematea eragiten du eta arrisku-egoera areagotzen du. IM-Defensorasen arabera (2024):

Mesoamerikan, 2012 eta 2022 urteen artean giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak egin zituztenen ia erdia (% 45) estatuarekin lotura zuten eragileak izan ziren; hala nola polizia-autoritateak (% 22,9), udalerrietako, departamentuetako, probintzietako, estatuko eta nazioko autoritate publikoak edo autoritate publiko federalak (% 17,2) eta indar militarrik (% 4,9) (IM-Defensoras, 2024, 50 or.). Mexikon,

2012 eta 2022 urteen artean giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak egin zituztenen % 35,7 estatuko eragileak izan ziren; hala nola militarrik (% 0,9), polizia-indarrak (% 16,4) eta udalerrietako eta estatuko autoritate publikoak edo autoritate publiko federalak (54 or.).

OSC Guneak adierazi duen bezala, «instituzioen indarkeria jorratzea beharrezkoa da, giza eskubideen defendatzaileen eta kazetarien egunerokoan presente baitago, eta gobernuak beraiek modu arbitrarioan pertsonak belhurtzeko erabiltzen dute, instituzio-aparatua mobilizatzen» (35 or.).

Bestalde, defendatzaileek lurra eta natura ondareak bezalako kontuzko gaien alde borroka egiten dutenean, estatuaren beraren erresistentziarekin egiten dute topo, bereziki interes horiek gobernuaren, enpresa handien edo tokiko botereen interesekin bat egiten dutenean, eta horrek jasotzen duten babesaren eraginkortasuna mugatzen du.

Testuinguru batzuetan, estatuaren gabezia krimen antolatua presentzia handiarekin bat dator, eta horrek indarkeria sistematikoko egoera sortzen du, mehatxuak, bortxazko desplazamenduak eta komunitateko liderren zein giza eskubideen defendatzaileen erailketak gertatzen dira, eta ikerketa honetako komunitateek horiei guztiei aurre egin behar diete.

Tarahumara Mendilerroko eskualdean, krimen antolatua legez kontrako jarduerak egiten ditu eta horren influentzia etengabeko mehatxua da komunitate indigenentzat. Kartelen arteko konpetentziak eta krimen antolatuko taldeen banaketak eragindako segurtasun ezaren giroa dago eskualdean. Egoera horri giza eskubideen beste urraketak gehitu behar zaizkio, hala nola adingabeak bortxaz errekrutatzea. Oso gazteak direnetik, narkotrafikoan lan egitera behartzen edo tentatzen dituzte, izan drogak hazten edo indarkeria-ekintzetan.

«Narko-laborantzak gazte rarámuri batzuk asko erakartzen ditu, izan ere, boteretik eta mafiaburu aintzatetsienengandik gertu egon nahi dute. Horie-

tako asko sikarioak, txanodunak eta kalibre altuko armak ikusten hazi diren nerabeak dira» (E. Vaquerizo, 2017ko azaroak 18, El narco y la tala ilegal acechan a los rarámuri, El País).

Egoera horrek komunitateko gizarte-ehuna desegin ez ezik, defendatzaileentzako diseinatutako babes mekanismoaren eraginkortasuna ere mugatzen du.

Bestalde, estatuaren eta botere ekonomikoaren arteko aliantzak egoteak erauzketa-enpresek baliabideak mugarik gabe ustiatzea ahalbidetzen du. Bipiltzearen logika kolonialak eusten duen eredu horrek komunitate indigenengan eragin larria du eta bazterketa eta indarkeria betikotzen ditu.

Enpresen erasoak jasotako % 5,3 soilik diren arren, erauzketa-enpresek eraso asmo bultzatzen dituzten susmoa dago. Gainera, segurtasun pribatuko enpresak «armada» gisa aritzen dira haien interesak ba-

besteko eta horrek tokiko komunitateentzako eragin larriak ditu eta gizarte-bazterketa areagotzen du (IM-Defensoras, 2024, 56-57 or.).

Estatuaren eta botere ekonomikoen arteko aliantzak egoteak erauzketa- enpresek baliabideak mugarik gabe ustiatzea ahalbidetzen du



Estatuak ez du komunitateetan justiziara sarrera izatea bermatzen eta, Gonzálezek dioen bezala, «komunitate askok ez daukate nora jo ezta salaketak aurkezteko konfiantzarik». Choréachi eta Coloradas de la Virgeneko defendatzaileen kasuan, zehazki, justiziara sarrera izateko traba ugari dituzte: urruntasuna, autoritaterik ez egotea, komunitate gisa aitortpena ez izatea etab. Dena den, komunitateek eutsi egin diote eta haien lurraldea defendatzen jarraitu dute. ASMAC bezalako erakundeen lanak eta teknologiak lurraldearen defentsari ikusgarritasuna ematen lagundu dute, defendatzaile indigenei legez haien lurraldea defendatzeko tresnak eman dizkiete (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Autoritate batzuek eta berezko justizia sistemak babeserako eginkizunean huts egin ez ezik, gehiegikerien konplize ere izan ohi dira. OSC Gunearen (2017) txostenaren arabera, «justizia sistemako funtzionarioak, talde horien (defendatzaileen) aurkako indarkeria ikertzearen eta arduradunei isunak jartzearen arduradunak, defendatzaileen aurkako kriminalizazio-prozesuen eragile nagusien artean daude» (16 or.).

Bestalde, estatuaren indarra konponbide gisa zalantzan jartzen duen zigor-populismoaren aurkako ikuspegitik kontraesana dirudi, eta baita autonomia eta komunitateentzako justizia defendatzen duten idealen aldetik ere, baina ikertutako komunitateek adierazi dute «babesteko

modua haien lurraldean zuzenbidezko estatua ezartzea dela: errepideen bidez azpiegiturak hobetzea; armada edo guardia nazionala etengabe presente egotea, erasotzaileak ez direlako estatuko polizien beldur eta ez dituztelako errespetatzen; eta zigorgabetasunari aurre egiteko ministerio publiko ibiltariak bidaltzea» (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5). Eskaera horrek muturreko indarkeriaren, estatuaren babes-ezaren eta zaurgarritasun-egoera historikoaren testuinguru zehatza azaleratzen du. Egiturazko indarkeriaren isla da eta horrek komunitateak

estatuaren aparatua jotzera behartzen ditu, hori delako indarkeria sistematikoaren aurka bizirauteko neurri bakarra.

Autoritate batzuek eta berezko justizia sistemak babeserako eginkizunean huts egin ez ezik, gehiegikerien konplize ere izan ohi dira





Ustelkeria eta zigorgabetasuna

0 eta 100 bitarteko eskalan, Mexikok 31 puntu lortu zituen, 0 ustelkeria oso handia delarik, Transparency International Corruption Perception Indexen (2023) arabera.

Giza eskubideen urraketen jatorri nagusienetako bat ustelkeria da. Aldi berean, urraketak prebenitzeko edo jorratzeko diseinatutako neurrien eraginkortasun eza eta horiek betikotzeko zigorgabetasuna eragiten ditu ustelkeriak. Defendatzaileen erailketa gehienak batez bestekoa baino ustelkeria handiagoko herrialdeetan gertatzea ez da kasualitatea (Global Witness, 2022).

Instituzioen «dortokismoa» Mexikoko ustelkeriaren adierazgarri da, izan ere, instituzioek nahita geldo aritzeak eskubideen defentsari trabak jartzen dizkio eta partikularren interesei mesede egiten die. Coloradas de la Virgenen, esaterako, Nekazaritza Erreformaren Idazkaritzak jauntxoei mesede egiteko prozesuak manipulatu zituen. Hala, jauntxoek SEMARNATen basoa mozteko baimenak lortu zituzten, auzitegiak baimen horiek bertan behera uztea agindu izan arren, atzeratu egin zelako, interesekin konplizitate argia baitzeukaten.

I. Gonzálezen arabera, ustelkeriak «zigorgabetasuna ahalbidetzen du eta komunitateetan indarkeria eta bipil-

tzea betikotzen ditu». Ikerketa honetako komunitateetan, botere politikoak tokiko jauntxoak artikulatzen eta babesten ditu. Ez dira kanpoko eragileak, tokikoak baizik, eta, Gonzálezek adierazi duen bezala, barne mailako kolonialismoaren adierazgarri dira² (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Bestalde, I. Gonzálezen arabera, «mekanismoak ez du zigorgabetasun kasuen salaketan esku hartzen; hori erakundearen edota defendatzaileen esku geratzen da, eta horregatik arrisku handiagoan daude». Ekintza-gabezia horrek mekanismoaren muga nagusienetakoa argi uzten du, ez dituelako giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak betikotzen dituzten egiturazko baldintzak jorratzen, hala nola ustelkeria. IM-Defensorasen (2024) txostenak azpimarratzen duen bezala, «herrialde batzuetan ezarritako babes mekanismo ofizialek gutxirako balio dute ezarritako zigorgabetasuna araua izaten jarraitzen baldin badu eta gure aurkako erasoak ez badituzte ikeretzen, ezeztatzen badituzte eta ezkututzen jarraitzen baldin badute» (105 or.). Horregatik, hain zuzen ere, ekintza integralak babes-neurrietan soilik ez geratzea beharrezkoa da, zigorgabetasunaren iturriaren aurka ere egin beharra dago.

² Estatu-nazio baten baitako menderatze modu espezifikoak da hori eta, batez ere, jatorrizko herriei, gutxiengoei eta menderatutako nazioei eragiten die. Fenomeno hori berez botere eta ustiapen egiturekin lotuta dago. Konkista garaian eratu ziren eta, denborak aurrera egin ahala, mantendu egin dira, baita estatuek formalki independentzia lortu eta gero ere, batzuetan, ustez emantzipatzaileak diren eredu sozial eta ekonomikoak izatera igarotzen dira, hala nola sozialismoa edo kapitalismo neoliberala. https://conceptos.sociales.unam.mx/conceptos_final/412trabajo.pdf

Mekanismoetan genero- eta interseksionalitate-ikuspegiaren gabezia

Defendatzaileek jasaten dituzten indarkeriek beste zapalketa-sistemetan dute jatorria, hala nola arrazakeria eta estraktibismoa. Emakume indigenak, afro-ondorengoak, migratzaileak, landa-eremuak, LGBT+ pertsonak, adinekoak, desgaitasunen bat dutenak eta adingabeak zaurgarritasun egoera berezian daude sistema heteropatriarkal, arrazista eta kolonialean, faktore horien konbinazioa dela eta. Ikuspegi horiek normalean ez dira kontuan hartzen estatuko babes-politikak diseinatzean.

Genero-ikuspegia ezinbestekoa da emakumezko defendatzaileen babesa jorrazteko, izan ere, askok ezkutatu eta normalizatu erasoei aurre egin behar diete, gizarteko estigma eta estereotipoen ondorio baitira. Ikuspegi hori Martín Quintanak (2016) aurretik garatutako ikerketetan dokumentatu du, babes-neurriak diseinatzeko gizarteko eta kulturako faktoreak kontuan hartzeko beharra azpimarratu du bereziki:

«Genero diskriminazioa eta defendatzaile emakumezkoek jasaten dituzten emakumeen aurkako gaitzarako indarkeria motak ezinbesteko elementutzat hartu beharko lirateke haien babeserako estrategiak, mekanismoak edo politika publikoak diseinatzeko edo ezartzeko orduan. Horiek kontuan izatean, besteak beste, aurre egin beharreko indarkeria-mota desberdinak ezkutatzeari, isilarazteari eta normalizatzeari aurre egingo liezaiekete. Faktore horiek lotura estua dute haien artean eta emakumeak erasoan aurrean oso zaurgarriak izatea eragiten dute» (13 or.).

Emakume defendatzaileen aurkako indarkeria, kontrola eta eraiketak ez dira isolatutako ekintzak, komunitateko lurraldeak ustiatzea errazteko estrategia politikoak baizik

Emakume defendatzaileen aurkako indarkeria, kontrola eta eraiketak ez dira isolatutako ekintzak, komunitateko lurraldeak ustiatzea errazteko estrategia politikoak baizik. Herri-ondasunak eta komunitateko egiturak defendatzen funtsezkoak diren emakumeak menderatzean, tokiko erresistentziak desegiten dituzte eta komuni-



tateetan beldurra sortzen dute. Beldurrak kohesioa ahul-tzen du, oposizioa isiltzen du eta lurraldeak arpilatzea errazten du. Gladys Tzul Tzul-ek azpimarratu duen bezala:

«emakumeen gorputza menderatzea eta harra-patzea beharrezkoa da komunitatearen lurraldeak suntsitzeko; jazarpenak, zelatak, erasoak, krimina-lizazioak eta judizializazioak eraiketa eragin zuten. Emakumeen erailketak komunitateak izutzeko fun-tzio politikoa dauka» (IM-Defensoras, 2021, 3 or.).

Isela González-en hitzetan, «jauntxoak nire aurka aritzen dira lurraldearen eta ingurumenaren defentsan emakume batek laguntzea ez dutelako onartzen. Argi dago, indige-nen aurkako arrazakeria ere badago, horregatik auzitegie-tan komunitate indigenek haien aurka egitea ere ez dute onartzen» (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).


Bestalde, emakume defendatzaileen babes eraginkorre-rako gobernuko autoritateek eta justizia-eragileek ma-txismoaren eta arrazakeriaren eraginak ezabatu behar dituzte aritzeko moduan. Alborapen horiek emakume de-fendatzaileen lanari legitimitatea kendu ez ezik, diskrimi-nazioa betikotzen dute eta arriskuak areagotzen dituzte.

Azkenik, generoaren eta jatorri etnikoaren arabera bana-tutako datuak biltzea ezinbestekoa da emakume defen-datzaileek eta komunitate indigenek jasaten dituzten be-riarazko indarkeriei ikusgarritasuna emateko eta horiek jorratzeko. Etniaren araberako erregistrorik ez egoteak arazo horiek ezkutatu eta komunitatea babesteko estra-tegiak ahultzen ditu.

Nazioartean eragina

Mexikoko kanpo-politikak giza eskubideetan atzerapau-soak eman ditu eta, horregatik, defendatzaileen eta kaze-tarien babesa hobetzeko nazioarteko presioa ahuldu da. Mexikoko estatuak NBE eta CIDH bezalako nazioarteko erakundeen herrialdeko giza eskubideen krisiaren ingu-ruko oharra gutxietsi eta zikindu ditu. Jarrera horrek nazioarteko eragileen aldatetak eta hobekuntzak eska-tzeko gaitasuna ahuldu ez ezik, biktimak egoera zaurga-riagoan eta babes edo justiziarako sarbide eraginkorrik gabe uzten ditu.

Defendatzaileen lanaren, haien borroken eta aurre egin beharreko arriskuen inguruko kontzientzia sortzea beharrezkoa da. IM-Defensorasen (2024) arabera, defenda-tzaileen lana ezagutzera ematea eta aitortzea ezinbeste-koa da, izan ere, haien parte-hartze politikoa normalean gutxietsi egiten da. Aitorpen publikoak aldateta eragile gisa babesten eta baliotzen ditu (104 or.). González-entzat, beste herrialdeetako giza eskubideen gobernuz kanpoko erakundeen aurrean defendatzaileen ahotsa altxatzea ere garrantzitsua da; ideia nazioarteko elkartasunetik, gizarte zibiletik eta gizarte mugimenduetatik abiatuta eragitea baita (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).



Babeserako konpromiso globalak

Defendatzaileak babesteko funtsek gora egin duten arren, haien erantzun-ahalmena eta iraunkortasuna hobetzea berebizikoa da. IM-Defensorasek nazioarteko lankidetzak baliabideak babes-behar berezietara moldatu behar dituela azpimarratu du, horretarako, eraginkortasuna bermatzeko defendatzaileekin lankidetzan aritu behar da programak diseinatzean. Diruzko laguntza hori malgua eta etengabea izan behar da, eta defendatzaileen segurtasun fisikoa, digitala eta psikosoziala indartzea ahalbidetu behar du. Horrez gain, nazioarteko lankidetzak murrizketa legalak indargabetzeko eta defendatzaileen kriminalizazioaren aurka borrokatzeko rol aktiboa izan behar du (IM-Defensoras, 2024, 108 or.).

Dena den, nazioarteko lankidetzaren eragina estatuko politiken eta aldebiko politiken koherentziaren araberakoa ere bada. IM-Defensorasen aburuz, eskualdeko herrialdeekin merkataritza- edo lankidetzaharremanak dituzten estatuek haien konpromisoak berrikusi behar dituzte, defendatzaileen eta haien erakundeen aurkako indarkeria betikitzen dituzten gobernuak edo enpresak finantzatzea ekiditeko. Hori «adostu-

tako politiken koherentzian oinarritzen da, baina, sarritan, aldebiko harremanetan ez dituzte kontuan izaten edo albo batera uzten dituzte eta, giza eskubideen kalterako, interes pribatuei edo enpresen interesei mesede egiten diete» (IM-Defensoras, 2024, 107 or.). Utzikeria horiek defendatzaileen babesa ahuldu ez ezik, zigorgabetasun-giroa ere sortzen dute.

Eskualdeko herrialdeekin merkataritza- edo lankidetzaharremanak dituzten estatuek haien konpromisoak berrikusi behar dituzte, defendatzaileen eta haien erakundeen aurkako indarkeria betikitzen dituzten gobernuak edo enpresak finantzatzea ekiditeko

Tokiko ikuspuntutik, nazioarteko komunitateak, bereziki enbaxadek, giza eskubideak sustatzeko eta errespetatzeko konpromisoa ganoraz betetzearen garrantzia azpimarratu du González defendatzaileak. Haren aburuz, haien eskumeneko enpresek giza eskubideak ez bortxatzea bermatzeko betebeharra dute instituzio horiek. «Gertatzen ari dena ikusarazteko Europako, Estatu Batuetako eta Kanadako enbaxadetara jotzen dugu, Mexikoko Gobernuaren eta enbaxada horiek ezartzen dituzten giza eskubideen programen arteko elkarrizketa eraginkorra errazteko itxaropenarekin. Elkarrizketa mota horiek defendatzaileak babesteko modu eraginkorrak aurkitzeko gakoa izan daitezke» (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).





Amaitzeko...

Mugarik Gaben azpimarratu nahi dugu argitalpen honen helburua norbanako eta komunitate defendatzaileen lanari ikusgarritasuna ematea dela, eta baita haien eskubideak eta lurraldeak defendatzeagatik aurre egin beharreko arrisku larriak salatzea ere. Coloradas de la Virgen eta Choréachiko kasuak historikoki bipiltzearen eta haien natura ondareak legez kontra ustiatzearen aurka borrokatu diren komunitate indigenen erresistentziaren eta auzardiaren adibide dira.

Defendatzaileen lanaren, haien borroken eta aurre egin beharreko arriskuen inguruko kontzientzia sortzea premiazkoa da. IM-Defensorasek (2024) adierazi duen bezala, defendatzaileen lana ezagutzera ematea eta aitortzea ezinbestekoa da, izan ere, haien parte-hartze politikoa

normalean gutxietsi egiten da (104 or.). Isela Gonzálezentzat, nazioarteko foruetan eta gisa eskubideen erakundeen aurrean defendatzaileen ahotsa altxatzea ere garrantzitsua da; gizarte zibiletik eta gizarte mugimenduetatik abiatuta nazioarteko elkartasuna indartzeko (komunikazio pertsonala, 2024ko irailak 5).

Lurraldea defendatzea bitzita defendatzea dela berresten dugu, eta borroka horrek kosmobisio indigenetan erro sakonak ditu. Bisio horiek natura eta komunitateak banaezinak direla argi uzten digute. Yasnaya Aguilarrek (2021) argi utzi duen bezala: «Mendebaldekoak ez diren herrien lurraldearen defentsa, eta meategien eta megaproiektu estraktibisten aurkako borroka natura gu geu ere bagarela barne hartzen duen logikaren baitan egiten dira».

Erreferentzia bibliografikoak

- **Aguilar Gil, Yásnaya E.** (2023). *Tëkëëk Pike. Antología*. ONA Ediciones.
- **Aguilar Gil, Yásnaya E.** (2021eko apirilak 4) *Jétsuk*. Nuestro ambientalismo se llama defensa del territorio. *El País*. <https://elpais.com/autor/yasnaya-elena-aguilar-gil/2/>
- **Amnistia Internazionala** (2019). *Entre Balas y el Olvido Entre balas y olvido: Ausencia de protección a personas defensoras del territorio en la Sierra Tarahumara*. <https://www.amnesty.org/es/documents/amr41/9554/2019/es/>
- **A.I.** (2020). *Hacia una protección colectiva y comunitaria para personas Defensoras de tierra y territorio en México*. <https://amnistia.org.mx/contenido/wp-content/uploads/2020/09/Hacia-una-proteccion-colectiva-y-comunitaria-para-personas-defensoras-de-tierra-y-territorio-en-M%C3%A9xico.pdf>
- **Armendariz Jaime**, (2021eko ekainak 15). Exhiben a Chihuahua y México en Corte internacional por no garantizar paz a comunidad rarámuri. *Raichalí Noticias*. <https://raichali.com/2021/06/15/choreachi-comunidad-sierra-tarahumara/>
- **Nazio Batuen Asanblada Orokorra** (2018ko ekainak 28). Informe de la Relatora Especial sobre los derechos de los pueblos indígenas sobre su visita a México. A/HRC/39/17/Add.2. https://hchr.org.mx/wp/wp-content/themes/hchr/images/doc_pub/2018-mexico-a-hrc-39-17-add2-sp.pdf
- **Bakerako Nazioarteko Brigadak (PBI)**. (2016). Boletín Acompañamiento en Chihuahua. https://www.peacebrigades.org/fileadmin/user_files/projects/mexico/imagenes/160815_asmac_es.pdf
- **Bakerako Nazioarteko Brigadak (PBI)**. (2019). Discriminación racial y el despojo de bienes naturales en territorios indígenas sin consulta previa, libre e informada: Caso Choréachi. <https://pbi-mexico.org/es/noticias/discriminacion-racial-y-el-despojo-de-bienes-naturales-en-territorios-indigenas-sin>
- **Camhaji, E.** (2024ko urriak 2) Los 100 pasos de Claudia Sheinbaum para construir 'su' México. *El País*. <https://elpais.com/mexico/2024-10-02/los-100-pasos-de-claudia-sheinbaum-para-construir-su-mexico.html>
- **Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra** (2023). *CIDH: 2023 cierra con altos índices de violencia contra personas defensoras en las Américas* <https://www.oas.org/es/cidh/jsForm/?File=/es/cidh/prensa/comunicados/2024/045.asp>
- **Ampliación de Medidas Provisionales Asunto Integrantes de la Comunidad Indígena de Choréachi respecto de México**. Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiko ebazpena, 2023ko abenduaren 12koa. https://www.corteidh.or.cr/docs/medidas/choreachi_se_04.pdf
- **Medidas Provisionales Respecto de México Asunto Integrantes de la Comunidad Indígena de Choréachi**. Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiko ebazpena, 2020ko ekainaren 10ekoa. https://www.corteidh.or.cr/docs/medidas/choreachi_se_02.pdf
- **Asunto: Integrantes de la Comunidad Indígena de Choréachi respecto de México**. Solicitud de Medidas Provisionales. Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiko ebazpena, 2017ko martxoaren 25ekoa. <https://jurisprudencia.corteidh.or.cr/es/vid/883975132>
- **Defendatzaileen eta Kazetarien Babeserako Gizarte Zibileko Erakundeen Gunea** (2017). Protección integral para personas defensoras de derechos humanos y periodistas: la deuda del Estado mexicano. <https://espacio.osc.mx/wp-content/uploads/2022/03/3.-La-deuda-del-Estado-mexicano.pdf>
- **EZLN** (1994). Declaración de la Selva Lacandona. <https://radiozapata.org/?p=20280>
- **García Luna: declaran culpable de narcotráfico al exjefe de la lucha contra las drogas en México**. *BBC News Mundo*. Redacción. 2023ko otsailaren 22an eguneratua. <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-64725004>
- **Global Witness**. (2022). *Una década de resistencia. Diez años informando sobre el activismo por la tierra y el medio ambiente alrededor del mundo*. <https://www.globalwitness.org/es/decade-defiance-es/>
- **Global Witness**. (2023) Siempre en Pie. Personas defensoras de la tierra y el medioambiente al frente de la crisis climática. <https://www.globalwitness.org/es/standing-firm-es/#top-findings-2022-es>
- **Chihuahuaoko Estatuko Gobernuak** (2016). Recibe Corral proyecto de decreto para creación de Fiscalía Especializada en Investigación de Violaciones Graves a Derechos Humanos. <https://chihuahua.gob.mx/recibe-corral-proyecto-creacion-fiscalia-especializada-investigacion-violaciones-graves-derechos-humanos>
- **Gómez Durán, Thelma** (2022ko martxoak 16). *Coloradas de la Virgen: comunidad de la Sierra Tarahumara acumula defensores asesinados y familias desplazadas ante la indiferencia del Estado*. *Mongabay*. <https://es.mongabay.com/2022/03/coloradas-de-la-virgen-comunidad-de-la-sierra-tarahumara-que-acumula-a-defensores-asesinados-y-familias-desplazadas/>
- **González Casanova, P.** (2023). Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa. Gizarte Ikerketen Institutua. *Colonialismo Interno (Una Redefinición)*. https://conceptos.sociales.unam.mx/conceptos_final/412trabajo.pdf
- **Gudynas, E.** (2010). Imágenes, ideas y conceptos sobre la naturaleza en América Latina en Cultura y Naturaleza (L. Montenegro, ed). Jardín Botánico J.C. Mutis, Bogotá. <https://www.gudynas.com/publicaciones/capitulos/GudynasConceptosNaturalezaCo10.pdf>
- **Informe de la Relatora Especial sobre los derechos de los pueblos indígenas sobre su visita a México** (2019).

- https://conahcyt.mx/cibiogem/images/cibiogem/normatividad/estandares_dh/docs_estandares_dh/OACNUDH_Cerrando_la_brecha_recomendaciones_para_la_implementacion_de_los_derechos_de_los_pueblos_indigenas_en_Mxico_2019.pdf
- **Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos:** (2024) Informe: Datos que nos duelen, redes que nos salvan: 10+ años de agresiones a defensoras en Mesoamérica. <https://im-defensoras.org/2024/04/resumen-ejecutivo/> (2021) Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos. Tendencia en Defensoras de Tierra, Territorio y Justicia. Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos. <https://im-defensoras.org/public/42ikmhjd2uml00kmai4phyz11gf/IMD-TierrasTerritorios-V02-4.pdf>
 - **Herri Indigenen Institutu Nazionala.** (2023). *Plan de Justicia de la Sierra Tarahumara Territorio de los Pueblos Ralámuli, Ódami, Oichkama (Pima) y Warijó.* <https://www.inpi.gob.mx/planes-de-justicia/09-PJ-Sierra-Tarahumara-ver-dic-23.pdf>
 - **La colectiva Cambiémosla Ya.** (2023). *Minería canadiense en México: ¿Quién se ha beneficiado de la relación bilateral?* <https://mx.boell.org/es/2023/01/10/mineria-canadiense-en-mexico-quien-se-ha-beneficiado-de-la-relacion-bilateral>
 - **Loera González, J.J. eta Hernández Olivas, J.** (2019). *Sierra Tarahumara: Violencia sistemática y conflictos socio-ambientales en Chihuahua, México.* Dossier: Violencias Contra Líderes Y Lideresas Defensores Del Territorio Y El Ambiente En América Latina. <https://forum.lasaweb.org/files/vol50-issue4/Dossier-5.pdf>
 - **Martín Quintana, María.** (2016). El enfoque de género en la protección a defensoras de derechos humanos: Las experiencias de México y Honduras. <https://justassociates.org/es/all-resources/el-enfoque-de-genero-en-la-proteccion-a-defensoras-las-experiencias-de-mexico-y-honduras/>
 - **Molina, Isaac.** 2022ko martxoak 11, Los Baldenegro: familia perseguida y asesinada por defender el bosque. *El Heraldo de Chihuahua.* <https://www.elheraldodechihuahua.com.mx/local/chihuahua/los-baldenegro-familia-perseguida-y-asesinada-por-defender-el-bosques-de-chihuahua-7978380.html>
 - **Ochoa, Laura** (2024ko maiatzak 8). Indígenas rarámuris, defensoras de la Sierra Tarahumara. Caso Coloradas de la Virgen. *CIMAC Noticias.* <https://cimacnoticias.com.mx/2024/05/08/indigenas-raramuris-defensoras-de-la-sierra-tarahumara-caso-coloradas-de-la-virgen/>
 - **Oficina en México del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos:** (2019). *Diagnóstico sobre el funcionamiento del mecanismo.* https://hchr.org.mx/wp/wp-content/themes/hchr/images/doc_pub/190725-Diagnostico-Mecanismo-FINAL.pdf https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Defenders/Declaration/declaration_sp.pdf
 - **Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo.** (2010). *Informe sobre Desarrollo Humano de los Pueblos Indígenas en México. El reto de la desigualdad de oportunidades.* https://planipolis.iiep.unesco.org/sites/default/files/ressources/mexico_hdr_2010.pdf
 - **Protección Internacional.** (2017). Es tiempo ya. Políticas públicas eficaces para el derecho a defender los derechos humanos. <https://www.protectioninternational.org/wp-content/uploads/2022/12/Es-tiempo-ya-ful-Spanish.pdf>
 - **Ramírez Espinosa, N. eta Cerqueira D.** (2020). *La Libre Determinación De Los Pueblos Indígenas En México: Experiencia Y Regulación.* <https://www.ohchr.org/sites/default/files/documents/issues/indigenouspeoples/cfi/submissionselfdetermination/subm-self-determination-under-indi-peop-ngos-fundacion-para-debido-proceso-mexi.pdf>
 - **Red en Defensa del Territorio Indígena de la Sierra Tarahumara** (2016) *Informe: Derecho Territoriales de los Pueblos Indígenas de la Sierra Tarahumara.* <https://kwira.org/wp-content/uploads/informeterritorialatahuhama.pdf> (2024). *Informe México habla sobre derechos humanos. Informe temático sobre la situación de los pueblos indígenas de la sierra Tarahumara para el 4º examen periódico universal de México.* <https://es.defensatarahumara.org/wp-content/uploads/2024/01/Informe-REDETI-EPU-diseno-colectivo-EPUMx-1.pdf>
 - **Rosales, Óscar.** (2022ko maiatzak 3). Personas desplazadas de la Tarahumara ganan amparo para el retorno seguro a su territorio. *La Verdad. Periodismo de investigación.* <https://laverdadjuarez.com/2024/05/03/personas-desplazadas-de-la-tarahumara-ganan-amparo-para-el-retorno-seguro-a-su-territorio/>
 - **Simpson, Leanne eta Klein, Naomi.** *Danzar el mundo para traerlo a la vida: conversación con Leanne Simpson de Idle No More* en Tabula Rasa revista. nº 26 (enero-junio 1017). <https://www.revistatabularasa.org/numero26/danzar-el-mundo-para-traerlo-a-la-vida-conversacion-con-leanne-simpson-de-idle-no-more/>
 - **Soberanes, Rodrigo.** (2019ko urriak 30) México: a un año de la muerte de Julián Carrillo, la comunidad sigue llena de miedo. *Mongabay.* <https://es.mongabay.com/2019/10/defensores-ambientales-mexico-julian-carrillo-sierra-tarahumara/>
 - **The Goldman Environmental Prize.** (2005) Goldman Prize Winner. Baldenegro, Isidro. <https://www.goldmanprize.org/recipient/isidro-baldenegro/>
 - **Tierra de Resistentes.** (2019ko apirilak 23), Sin Territorio No Somos Nada. Erreportajea. Mexiko. <https://tierraderesistentes.com/es/2019/04/23/sin-territorio-no-somos-nada/>
 - **Transparency International.** The Global Coalition Against Corruption. <https://www.transparency.org/en/cpi/2023/index/mex>
 - **Vaquerizo, E.** (2017ko azaroak 18), El narco y la tala ilegal acechan a los rarámuri. *El País.* https://elpais.com/elpais/2017/11/07/planeta_futuro/1510072290_974871.html

